

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2022-2023 ikasturtea

**Generoaren Sozializazioa eta Sexualitatea: Pornografiaren eta
Prostituzioaren Eskaria**

Egilea: Haizea Llanos García

Zuzendaria: María Dosil Santamaria

Leioan, 2023ko maiatzaren 27an

Generoaren Sozializazioa eta Sexualitatea: Pornografiaren eta Prostituzioaren Eskaria

Haizea Llanos García

UPV-EHU

Genero-sozializazioaren eragina pertsona baten bizitzako eremu guztietan aurki daiteke, eta horien artean, honen sexualitatean. Horregatik, azterlan honen helburua genero-sozializazioak eta honen ondorioek (genero-estereotipoak eta rolak, sexismoa, etab.) pertsonen sexualitatean duten eragina aztertzea da, eta, beraz, pornografiaren eta prostituzioaren kontsumoan eta eskaeran. Horretarako, indarrean dagoen literatura kontsultatzeaz gain, ikerketa bat burutu da 124 parte-hartzaileekin; horietatik %69,4 emakumeak izan dira, %29 gizonak eta %1.6 pertsona ez-bitarrak. Eraitzen aldetik, genero-sozializazio prozesuak gizonengan eta emakumeengan eragin desberdina duela baieztatu dela aipagarria da; hala ere, etorkizuneko ikerketei begira, prozesu honen inpaktua ikertzen jarraitu beharko litzateke.

genero-sozializazioa, desparekotasuna, sexualitatea, pornografia eta prostituzioa

La influencia de la socialización de género se encuentra prácticamente en todos los ámbitos de la vida de una persona, y entre ellos, en su sexualidad. Por ello, este estudio tiene como objetivo analizar cómo la socialización de género y sus efectos (los estereotipos y roles de género, el sexismo, etc.), influyen en la sexualidad y, por tanto, en el consumo y la demanda de pornografía y prostitución. Para ello, además de consultar la literatura vigente, se ha llevado a cabo una investigación de 124 participantes, entre ellos el 69.4% han sido mujeres, el 29% hombres, y el 1.6% personas no binarias. Entre los resultados se destaca la constatación de que el proceso de socialización de género tiene un impacto desigual en hombres y mujeres, si bien, de cara a futuras investigaciones, habría que seguir investigando la influencia de este proceso.

socialización de género, desigualdad, sexualidad, pornografía y prostitución

The influence of gender socialization can be found in all areas of a person's life, including their sexuality. Therefore, this study aims to analyze how gender socialization and its effects (such as gender stereotypes and roles, sexism, etc.) influence people's sexuality, and consequently, the consumption and demand of pornography and prostitution. In addition to consulting current literature, a study has been carried out involving 124 persons, of which 69.4% were women, 29% men, and 1.6% non-binary people. Among the results, it has been confirmed that the gender socialization process has an unequal impact on men and women. However, in future research, the influence of this process should be further investigated.

gender socialization, inequality, sexuality, pornography and prostitution

Aurkibidea

1. Sarrera	6
2. Marko Teorikoa	7
2.1. Sexua eta Generoaren Kontzeptualizazioa	7
2.2. Generoaren Sozializazioa	7
2.2.1. Generoaren Sozializazioa eta Sexismoa	8
2.2.2. Genero-estereotipoak, Rolak eta Identitatea	9
2.3. Gizonen eta Emakumeen Sexualitatea Bizitzeko Modua	10
2.4. Emakumeen Kosifikazioa eta Hipersexualizazioa	11
2.5. Sexu-ustiapenaren Merkatua eta Sexu-industria	13
2.5.1. Pornografiak Zabaltzen duen Mezua	13
2.5.2. Prostituzioa Praktika Ekonomiko Patriarkal Gisa	14
3. Helburuak eta Hipotesiak	15
4. Metodologia	16
4.1. Ikerketaren Diseinua	16
4.2. Partaideak	16
4.3. Tresnak	17
4.4. Prozedura	18
4.5. Datuen Analisia	19
5. Emaitzak	20
5.1. Genero Sozializazioa: Genero-rol Tradizionalak eta Sexu-araudi Bikoitza	20
5.2. Emakumeenganako Estereotipo Tradizionalen Barneratzea	20
5.3. Sexismo Anibalentea: Etsaitasunezko Sexismoa eta Sexismo-onbera	21
5.4. Sexualitatea: Sexu-harremanak	21
5.5. Pornografiaren Inguruko Jarrerak eta Iritziak	22
5.6. Prostituzioaren Kontsumoa eta Onarpen-maila	25
6. Eztabaidak eta Ondorioak	27
6.1. Aurkitutako limitazioak eta etorkizunerako ildoak	29
7. Etika Profesionala eta Datuen Babesa	30
8. Erreferentzia Bibliografikoak	31

1. Sarrera

Generoaren sozializazioa bizitzako lehen uneetatik antzeman daiteke, hau neskatoei jaiotzean egiten zaizkien belarritakoetan eta genero bat bestetik bereizteko erabiltzen den koloreetan aurki daiteke. Jendarteak¹ prozesu honek sortzen dituen arauak, balioak, estereotipoak eta rol bereizgarriak genero bakoitzaren berezko bezala ulertzen ditu. Hala ere, denbora aurrera egin ahala, hauen egiazkotasuna zalantzan jartzen joan da. Izan ere, ezdeusak diruditen desberdintasun horiek genero desparekotasunari bide ematen diote, emakumeak gutxiesten dituen sistema baten legitimazioa suspertuz.

Desparekotasun hau arlo sozial eta pribatuko guztietan islatzen da, pertsonen sexualitatean barne. Hain zuzen ere, generoen estereotipo eta rolek sexualitatea gizonen esku jartzen dute, hauen desirak ase beharreko premia gisa ezartzen. Emakumeei, aldiz, gizonen nahiak asetzeko funtzioa esleitzen zaie, hauen sexualitatea bigarren maila batean utziz. Botere-harreman hau emakumeen gorputzak kosifikatu eta hipersexualizatzen dituen sistema patriarkal bati esker eusten da. Horrela, emakumeen gorputzak etekin ekonomikoa ateratzeko produktu batean bihurtzen dira. Pornografia eta prostituzioa sexu-industria honen adibide garbiak izango lirateke. Pornografiak emakumeak modu estereotipatuan irudikatzen dituen bitartean, prostituzioak hauen gorputza gizonen eskura dagoen objektua bat delaren ideia indartzen du. Horrela, sexualitatea eta zerbitzu-sexualen kontsumoa generoaren sozializazioak ezarritako rol eta estereotipoekin hertsiki lotuta daude. Hortaz, ezinbestekoa da prozesu honek pertsonen sexu-portaeran nola eragiten duen aztertzea. Hala, gizarte-hezkuntzatik, hezkuntza afektibo-sexualeko proposamen osatuagoak bultzatzeaz gain, berdintasunezko jendartea sustatzeko eta genero-estereotipoen eraginen inguruan kontzientziatzeko programak, ekintza-planak eta zerbitzuak sustatu daitezke.

Lan honetan zehar, genero-sozializazioa, genero-estereotipoak, rolak eta identitatean era teorikoan sakonduko da, bai eta sistema neoliberal patriarkalak emakumeen hipersexualizazioan eta kosifikazioan duen eraginean ere. Horrez gain, sexu-industriaren ideia aurkeztuko da, ondoren pornografiaren eta prostituzioaren kontsumoa eta eskaria aztertzeko. Behin gaiak kokatuta, hainbat helburu eta hipotesi biltzen dituen ikerketari ekingo zaio, eta lortutako emaitzak interpretatu eta aztertuko dira. Amaitzeko, lan honen ondorioak, hausnarketak eta etorkizuneko ikerketetarako iradokizunak aurkeztuko dira. Argitu behar da, gai hauen inguruan ikertzeko motibazio nagusia jendartearen eta generoaren funtzionamenduan sakontzea eta hau hobeto ulertzea dela, guztiontzako jendarte bidezkoagoa sustatzeko moduak aurkitzeaz gain.

¹ Lan honetan zehar *jendarte* hitza *gizarte* ordezkatzeko erabiliko da. Lehenengo hau, egokiagoa bezala ikusten delako.

2. Marko Teorikoa

2.1. Sexua eta Generoaren Kontzeptualizazioa

Munduan gizatalde erabat ezberdinak aurki daitezke, eta horietako bakoitzak errealitatea ulertzeko modu ezberdinak ditu. Egiten duten munduaren interpretazioaren arabera, haien ohiturak, sinesmenak, ereduak eta arauak aldatu egingo dira. Horrela, alde esanguratsuak aurkitzen dira talde sozial batetik bestera. Jaiotzean, pertsonak jendarte bateko kide bihurtzen dira, horren ezaugarriak bereganatzen eta onartzen. Nolanahi ere, egokitzapen hau ez da beti modu berean gertatzen. Berez, arau sozialak oso desberdinak dira gizonentzat eta emakumeentzat. Prozesu eta banaketa hau ondo ulertu ahal izateko funtsezkoa da sexu eta genero terminoen arteko aldea argi izatea (Mancinas, 2011).

Sexuak pertsonak eme edo ar bezala bereizten ditu, jaiotzean dituzten sexu-organoen arabera. Generoak, aldiz, emakume edo gizon izateak zer dakarren definitzen duten desberdintasun soziokulturalak biltzen ditu. Generotik abiatuta, jendarteek emakume edo gizonentzako egokitzapenak dituzten funtzioak, rolak, aukerak edo jarrerak zehazten dituzte. Hala, jendartearen arabera, genero batekoa edo bestekoa izatea bizipen eta errealitate guztiz ezberdinak ekarri dezake (Espinar, 2009; Millett, 2010; Sanchez, 2015). De Miguel-en (2015, orri. 231) hitzetan² “femeninoa eta maskulinoa jendarteak sortutako kategoriak dira, eta generoaren ikuspegiak hauek nola eraikitzen eta funtzionatzen duten ikertzera gonbidatzen gaitu”.

2.2. Generoaren Sozializazioa

Zehatzagoak izateko, azaldutakoa kontzeptu batean laburbildu daiteke: generoaren sozializazioa. Honen bidez pertsonak jendarteak haien generoari dagokion jokabideak, balioak, arauak eta jarrerak barneratu eta bereganatzen dituzte. Horrela ulertuta, generoa jatorrizko ezaugarri bat baino, eskuratzen den propietate bat bezala ulertuko lirateke (Alario, 2020; Galet eta Alzas, 2015). Suberviola-k (2020) adierazi zuen bezala, genero-sozializazioaren eragina gizon eta emakumei lotutako rolak, estereotipoak eta identitatea zehazten ditu. Hori dela eta, pertsonen adierazteko, pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko modua jendarteak bere generorako ezarri dituen jarraibideen arabera aldatuko da. Epstein-ek (2008) egindako ikerketaren arabera, pertsonak genero-sozializazioarekin lotutako mezu ugari jasotzen eta barneratzen dituzte, eta hauek generoaren arabera kontraesankorrak izaten dira. Izan ere, haien hazkuntzan zehar emakumeek sexu-araudi bikoitza³ indartzen duten mezu ugari jasotzen dituzte, eta gizonek, berriz, genero-rol tradizionalak eta maskulinitate hegemonikoa jarraituzera bideratutakoak.

² Jatorrizko hizkuntza: “lo femenino y masculino son categorías sociales, y la perspectiva del género invita a investigar cómo se construyen y cómo operan organizacionalmente estas definiciones”

³Aurrerantzean era sakonagoan azalduko den kontzeptua.

2.2.1. Generoaren Sozializazioa eta Sexismoa

Alario (2018), Rebollo et al. (2006) eta Simon (2010) bezalako egileek generoaren sozializazioa sistema sexista baten bidez bermatzen eta sustatzen dela defendatzen dute. Sexismoa pertsona baten sexu biologikoak mugitutako jokabide edo jarrera diskriminatzaileen multzoa da. Denborak aurrera egin ahala sexismoa garatzen eta aldatzen joan da, beraz sexismo tradizionalaz eta gaur egungoaz hitz egin daiteke. Biek diskriminatzen badute ere, modu ezberdinetan egiten dute. Sexismo tradizionalak modu garbian azaltzen ditu emakumeekiko jarrera desparekoak eta kaltegarriak, hauek gizonen mendekotzat hartuz (Exposito et al., 1998). Glick eta Fiske-rentzat (1996) sexismo mota hau hiru kategoriaz osatuta dago (ikusi 1. taula).

1. Taula

Sexismo Tradizionalaren Dimentsioak

Paternalismoa	Emakumeek, gizonak baino ahulagoak direnez, gizonen zaintza eta babesa behar dute.
Genero-bereizketa	Emakumeen gaitasunak alderdi sentimentaletara, etxera eta familiara bideratuta daude, beraz, hauek ez dute jendarte-erakundeak zuzentzeko edo kontrolatzeko gaitasun nahikorik.
Heterosexualitatea	Emakumeek haien "erakargarritasun sexuala" erabiliz gizonak manipulatu eta kontrolatzen dituzte, beraz hauek arriskutsuak dira gizonentzat.

Autore hauek sexismo anbibalentearen kontzeptua proposatu zuten, honen arabera sexismoa ezberdinak baina elkarren osagarriak diren bi mota eratzen dute: etsaitasunezko sexismoa eta sexismo onbera. Etsaitasunezko sexismoa tradizionalan azaleratutakoarekin bat dator. Bestalde, sexismo onberak, emakumearen ikuspegi estereotipatua eta mendekoa iraunarazi arren, hau emakumeentzat modu positiboan eta onuragarrian bideratzen du. Hala ere, bi ereduak gizonen boterea eta kontrol sistematikoa bermatzen dute (Exposito et al., 1998; Glick eta Fiske, 1996; Olivan, 2017). Glick eta Fiske-ren (1996) arabera, etsaitasunezko sexismoa eta sexismo onbera jendartearen boterearen, genero-identitatearen eta sexualitatearen inguruan eraikitzen dira. Egileek *Ambivalent Sexism Inventory* (ASI) eskala sortu zuten, emakumeenganako sexismo anbibalentea neurtzeko. Eskala honekin egindako hainbat ikerketa gizonak emakumeek baino etsaitasunezko sexismo-maila altuagoak aurkezten dituzte (Exposito et al., 1998; Glick et al., 2000; Lameiras eta Rodriguez-Castro, 2003; Rodriguez-Castro et al., 2010). Bestalde, sexismo adinaren arabera ere ikertu egin da. Azterlan ezberdinen emaitzen arabera, pertsonak hazten doazen heinean, hauen jarrera sexistak gutxitzen joaten dira. Berez, sexismo onbera nerabeen

artean helduen artean baino nabariagoa da (Exposito eta Moya, 2001; Glick eta Fiske, 1996; Lameiras eta Rodriguez-Castro, 2002, 2003; Rodriguez-Castro et al., 2010).

2.2.2. Genero-estereotipoak, Rolak eta Identitatea

Sexismoak estereotipoz betetako generoen irudia transmititzen du, eta horren ondorioz, gizon eta emakumeentzat rol eta identitate guztiz desberdinak ezartzen dira (Lameiras eta Rodriguez-Castro, 2002). Galet eta Alzas-entzat (2015) genero-sozializazioaren prozesuak ezartzen dituen arau eta balioen barneratzea ondo ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da estereotipo, rol eta genero-identitateari buruz hitz egitea.

Castillo eta Montes-en (2014) lanaren arabera, genero-estereotipoak jendarte batek genero bakoitzari egokitzen dituen ezaugarrien multzoa dira. Estereotipoek pertsonak mugatzen dituzte, hauen gaitasunak, helburuak, sentimenduak, jarrerak eta zaletasunak zuzentzen dituztelako (Bravo eta Moreno, 2007; Gonzalez, 1999). Historian zehar, gizonezkoen irudia honako bereizgarri hauekin lotu da: botere-adierazpenak, aginpidea, emozioen eta afektu-adierazpenen neurritasuna, arlo sozialaren kontrola, etab. Emakumezkoaren irudia adeitsua, mendekoa, eskuzabala, arduratsua eta bizitza pribatuaren zaintzara murriztu den bitartean (Rebollo eta Hornillo, 2010). Hala eta guztiz ere, emakumearen estereotipoak alde oldarkorra eta bortitza ere badu, batez ere emakumeen artean ematen dena, bekaizkeriak eta lehiak eraginda. Emakumeei adeitsuak izateko hezten zaien moduan, gizonen onespina lortzeko etengabe etsaitasunez norgehiagoka aritzera ere irakasten zaie (Alborch, 2002; Hernandez, 2021). Orbach eta Eichenbaum-ek (1988, orri. 155) adierazi zuten bezala⁴ “askotan emakume baten arrakasta mehatxu bat da beste emakume batentzat”.

Amoros (1995) eta Cobo-rentzat (2006), genero-estereotipoek genero bakoitzerako ezarritako jendarte-rolak adierazten dituzte, jendarte-balorazio hierarkizatuak biltzeaz gain. Estereotipoek ezarritakoa oinarritzat hartuta, genero-rolak gizon eta emakumeen ekintzak eta eginkizunak bereizten dituzte. Tradizioz, gizonak ekoizpen lanen arduradunak izan dira: ekimen handia, indarra, autonomia eta trebetasuna eskatzen duten eginkizunak. Aitzitik, emakumeei ugalketa-lanak eta emozioekin hertsiki lotutakoak egotzi zaizkie: seme-alabak izatea, hauek, familia, adinekoak eta gaixoak zaintzea eta etxeko lanez arduratzea (Aguilar et al., 2013; Galet eta Alzas, 2015; Herrera, 2000). Genero-rolen eragina ezagutzera bideratutako azterlan anitzen arabera emakumeak malguagoak izaten dira genero-rolari dagokienez, gizonak, aldiz, eredu eta rol tradizionalak eta jarrera estereotipatuak zorrotz jarraitzen dituzte (Hartog eta Rios, 2003; Huston, 1985; Nelson eta Keith, 1990; Saldivar et al., 2015).

⁴ “El éxito de una mujer representa muchas veces una amenaza para otra mujer”

Genero-estereotipoak eta rolak ezartzen dituzten arauak barneratzean, pertsonak haien izaera egokitzen dute, honela jendartearen eskaerei erantzuteko eta honen parte izateko. Era honetan, genero-identitatea eratzen da (Alario, 2020; Butler, 1990; Galet eta Alzas, 2015). Alario-ren (2020) ustez, emakumeen identitatea adeitasuna arautzen du. Arestian aipatu bezala, sexismo eta estereotipo tradizionalen arabera, emakumeak ahulak eta mendekoak dira, beraz zainduko dituen norbait behar dute. Bakarrik egon nahi ez izatekotan, ezinbestekoa da haien izaera, jokaera eta fisikoa erakargarriak eta atseginak izatea. Emakumeengan honelako sinesmenak ezartzeak hauek besteen balioespen eta onarpenaren mendeko bihurtzen ditu. Kontran, gizonen identitatea hauek emakumeen ahultasunetik guztiz bereizten ditu. Hala, De Beauvoir-ek (1949) *El Segundo Sexo* liburuan emakumeen identitatea «besteentzat izatea» oinarritzen den bitartean, gizonena «norberarentzat izatea» murrizten dela islatu zuen.

2.3. Gizonen eta Emakumeen Sexualitatea Bizitzeko Modua

Azaldutako guztia ulertuta, gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak desparekotasun eraiki baten emaitza direla ondoriozta daiteke. Egitura hau harreman sozial eta pertsonal guztietan islatzen da, pertsonen sexualitatea barne, genero bakoitzaren rol sexualak bereizten dituzten portaera, posizio eta adierazpen-kodeak emanez (Lamas, 2000; Millan, 2013; Millett, 2010). Escalante et al. (2008) eta Garcia-Vega et al. (2005) bezalako azterlanetan erakutsi zenez, jendarteak gizonen sexu-askatasuna eta arduragabekeria eta emakumeen sexu-abstinentzia eta adeitasuna sustatzen ditu. Hala, urteetan zehar, sexu-harremanek esanahi guztiz ezerdina izan dute gizonentzat eta emakumeentzat. Hau hobeto ulertu ahal izateko, hurrengo 2. taula honetan, hainbat egileek sexualitateari eta sexu-desirari buruz emandako definizioak agertzen dira.

2. Taula

Sexualitatea eta Sexu-desira Generoen Arabera

	OME-n (2017) arabera, sexualitatea desira, intimitatea, ugalketa, sexua, identitatea, sexu-orientazioa eta genero-rolak hartzen ditu barne. Hala ere, hau adierazteko edo esperimintatzeko moduak hainbat eragileen mende daude, esate baterako: sozial, kultural, biologiko, etiko, legal, erlijiosoa, etab.
Sexualitatea	Bestalde, Gimeno-rentzat (2012) sexualitatea, betidanik, generoen arteko mugak eta desberdintasunak adierazi ditu. Pertsonen sexualitatea generoaren arabera ezberdinak diren arauen bidez gidatu da. Aldez aurretik, mugimendu feministak sexu-araudi bikoitzaren kontzeptua azaldu zuen. Honen arabera, sexualitateak ez du inoiz esanahi bera izan bi generoentzat. Modu honetan, genero batentzat onargarria dena ezin zaio besteari egokitu.

Gizonezkoen Sexualitatea	<p>Ballester eta Gil-ek (1994) egindako ikerketaren arabera, gizonen sexualitateak honako ezaugarri hauek jarraitzen ditu: sexu-maiztasuna eta gogobetetze-maila handiak, sexu-harremanetan rol aktiboa eta emakumeek baino pornografiaren erabilera handiagoa.</p> <p>Halaber, Gimeno-k (2012) gizonezkoen sexualitatea deskribatzeko hiru kontzeptu hauek erabiltzen ditu: behar naturala, senekoa eta emakumeen degradazioa erotizatzen duena. Autorearen ustez, gizonezkoen sexualitatea eta emakumeen degradazioa elkar-lotuta daude. Izan ere, mendeetan zehar, gizonak sexu-indarkeria emakumearen aurkako zapalkuntza eta tratu txarren iturri nagusi gisa erabili dute.</p> <p>Azkenik, Alario-ren (2018) arabera, sexualitatea eragile erabakigarria da maskulinitatea deskribatzeko eta garatzeko orduan. Egilearentzat, gizonezkoen sexualitateak ezaugarri jakin batzuk errepikatzen ditu: gizonak beti daude sexu-harremanak izateko gogoz, eta zenbat eta harreman gehiago izan orduan eta handiagoa da haien maskulinitatea. Gainera, gizonak rol nagusia eta aktiboa izan behar du, horrela bere boterea sendotuz.</p>
Emakumezkoen Sexualitatea	<p>Hite-ren (1976) ustez emakumeen sexualitatea definitzea zaila da, betidanik sexualitatearen irudi nagusia gizonak izan direlako. Sexualitatean ere genero-rolen islarak aurkitzen dira, eta sexu-harremanetan emakumeek rol pasiboa hartzen eta gizonak ezarritakoari erantzuten dute.</p> <p>Tasso-ren (2007) arabera jendarteak, emakumeen sexualitatea ulertu beharrean, hau gizonen sexualitatera egokitzea nahiago du. Egilearekin bat eginez, Cobo-k (2017), historian zehar emakumeei haien sexualitatea gizonen esku jartzera behartu zaiela ziurtatzen du, hau gizonen nahien inguruan oinarritu delako.</p>
Sexu-desira	<p>Sexu-desira pertsona batek harreman eta jarduera sexu-erakikiko izan dezakeen interesa lirateke. Interes horrek pertsona sexu-jarduera mota batean edo bestean parte hartzera motibatzen du, pertsona horren zaletasunen arabera (Sierra et al., 2019).</p>
Gizonezkoen Sexu-desira	<p>Alario (2018) eta Puleo-ren (1992) ustez, gizonezkoen sexu-desira norberaren gogobetetzea bilatzeagatik bereizten da. Urteetan zehar, gizonezkoen sexu-desira, nahi ez ezik, premia bezala ere definitu dira, hauek ase beharreko eskubide gisa sailkatuz.</p>
Emakumezkoen Sexu-desira	<p>Aldiz, Alario (2018) eta Hite (1976) autoreek emakumeen sexu-desiraren ezaugarri nagusiak elkarrekikotasuna eta gizonen plazerra asetzeko ardura direla adierazten dute. Ondorioz, emakumeen behar eta desira sexualak bigarren maila batean geratzen dira.</p>

2.4. Emakumeen Kosifikazioa eta Hipersexualizazioa

Horrenbestez, jendartearen sistema nagusiak (politiko, ekonomiko, mediatiko, familia, juridiko, etab.) hierarkikoki zorrotz banatuta daude, eta hauetan gizonak botere eta kontrol-hartzaile nagusiak dira. Mugimendu feministak patriarkatu hitza erabiltzen du sistema mota hau

izendatzeko (Alario, 2021; Millett, 2010; Otero et al., 2021). De Miguel-en (2015, orri. 231) hitzetan⁵:

“Generoa jendarte-bizitzaren eta gizakien hautematearen oinarritzko egituratzat hartzen da. Patriarkatuak desberdintasun fisiologikoen eraikuntza soziala generoen hierarkizazioarekin lotuta dagoela erakusten du, hau jendarte patriarkal baten ezaugarri nagusia izanda. Berdintasunezko jendarte batek ez luke generoaren ideia sortuko. Izan ere, hau generoaren arabera ezaugarriak eta funtzioak ezberdintzen dituen jendarte baten adierazgarri da.”

Arestian azaldutako sexu-desparekotasunak ez daude oharkabean jendarte patriarkalean. Esan bezala, gizonezkoen sexualitatea kontrolaezina eta senekoa bezala ulertzen da, eta emakumeena, berriz, gizonen desirak asetzeaz arduratzen da. Sistema honek arrakasta izan dezan, generoaren sozializazio-prozesua babesten eta ahalbidetzen duten jendarte-eragileak bat egin behar dute. Horrela, genero bakoitzerako arau, ezaugarri eta identitatea zehazten dituen sozializazio-prozesua gauzatzean, posizio sozial desparekoak sortzen dira, non emakumeak objektu gisa ikusten diren eta gizonak subjektu gisa (Cobo, 2015).

Hau hobeto ulertzeko komenigarria da gauzaketaren kontzeptuan sakontzea. Bengoechea-k (2006) azaltzen duenez, kosifikazio edo gauzaketaren fenomenoak pertsonen gizaki izaeraz gabetzen die, hau objektu izaeragatik ordeztuz. Ildo beretik, Padros-en (2021) arabera, emakumearen sexu-kosifikazioak hauek gorputzetara (objektuetara) murrizten ditu, ondorioz haien adimen-gaitasuna, nortasuna eta balio indibiduala itxura fisikoaren azpitik geratzen dira. Egilearentzat, sexu-gauzaketak emakumeen gorputzen hipersexualizazioa eragiten du. Alario (2020), Padros (2021) eta Walter (2010) autoreek adierazi zuten bezala, hipersexualizazioak emakumeen gorputzaren kosifikazio muturrekoa da, hauen balioa haien ezaugarri sexualen eta erakargarritasunaren arabera zehazten dituen. Hortaz, kontuan izanda sistema honek emakumeen gorputzak gauzak bihurtzen dituela, hauek gizonen desira sexualak asetzeko xedea bilakatzen dituela, eta, aldi berean, gizonaren gogobetetze sexuala eskubide gisa ikusten duela, salmenta-aukera berri bat sortzen da. Honetan emakumeen gorputzak eta sexualitatea salmenta-produktu nagusia dira. Hala, hipersexualizazioaren prozesua merkatu neoliberal kapitalistak emakumeen gorputza eta sexualitatea ustiatzea eta merkantilizatzea ahalbidetzen du. Ondorioz, industria patriarkal batean, emakumearen balioa sortzen duen desira sexualaren araberakoa izango da.

⁵ “Se considera que el género es un principio organizativo fundamental de la vida social y de la conciencia humana. El concepto de patriarcado muestra que la construcción social de las diferencias fisiológicas está relacionada con la jerarquización de los géneros, la cual es la característica principal de una sociedad patriarcal. Una sociedad igualitaria no produciría la marca de género, signo de la pertenencia a un grupo social con determinadas características y funciones”

2.5. Sexu-ustiapenaren Merkatua eta Sexu-industria

Laburbilduz, genero-sozializazioa arlo ekonomikoan oinarritutako ingurune sozioekonomiko eta kultural kapitalista batean garatzen da. Sistema honetan, merkatu eta industriaren interes nagusia ez da saltzen duen produktua, baizik eta hau kontsumitzerakoan bezeroan sortuko dituen esperientziak. Egungo sistema ekonomikoa bezeroak zorientasuna lortzeko medio izango diren produktuak eskaintzean datza. Hori dela eta, emakumeen hipersexualizazioak hauek sexu-industriaren produktu nagusia izatea bermatzen du (Bard, 2018; Cobo, 2017; Jameson, 2005). Industria honek gizonak emakumeak haien sexu-desira asetzeko tresna bat bezala erabiltzeko eskubidea dutenaren ideia iraunarazten du. Hortaz, honen ibilbidea luzaro iraun dezan, emakumeen gorputzen eta sexualitatearen ustiapena funtsezkoa da. Hau pornografiaz eta prostituzioaz baliatuz lortu egin da. Izatez, bi negozio hauek oso arrakastatsuak dira indarrean dagoen sistema kapitalista-neoliberal patriarkalean (De Miguel, 2015; Pateman, 1995).

2.5.1. Pornografiak Zabaltzen duen Mezua

Griffiths-entzat (2012) pornografia sexu-harremanen antzezpena lirateke, kontsumitzailea kitzikatzea helburu nagusi bezala duena. Egilearekin bat eginez, Espainiako Errege Akademiak (RAE, 2022, definizioa 1) hurrengo definizioa⁶ ematen du: “eszitazioa eragin nahi duen sexuaren aurkezpen irekia eta gordina”. Pornografia denboran zehar garatuz joan da, eta aspaldiko pornografia aldizkari edo denda zehatzetan erosi behar ziren filmetan banatzen zen bitartean, gaur egungo pornografia interneten aurkitu daiteke, guztien eskura egoten (Ballester et al., 2019).

Hasierarik, pornografiak eztabaida ugari sortu dituen gaia izan da. Hau sexuari buruzko egitura bakarra aurkezten du, honetan gizonak emakumearen gorputza eta sexualitatea menderatu eta emakumeak hauen interesen aurrean otzanak izan behar direnaren ohiko estereotipoak zorrotz jarraitzen da (Dolores, 2018; Sullivan eta McKee, 2015). Alario (2018) eta De Miguel (2015) orri-pornografikoek kategoria desberdinetan banatutako menu zabalak dituztela azaltzen dute, edukien ugartasunak bideo hauek ia kontsumitzaile guztien gustuetara moldatzea ahalbidetzen du. Hala eta guztiz ere, katalogo hauetan aurkitu ahal diren bideo gehienek ezaugarri komun bat dute: emakumeentzat lotsagarriak eta iraingarriak diren praktikak irudikatzea. Sambade-n (2017) aburuz, pornografiak emakumeen aurkako indarkeriazko jarduera ezberdinak aurkezten ditu, gizonen hauek modu krudelean tratatzen eta indarkeriazko sexu-jokabideak sustatzen irakatsiz.

Pornografiaren eragina eta kontsumoaren inguruko hainbat ikerketa burutu egin dira. Ballester eta Gil-en (1994) lanean emakumeen %27.6k eta gizonen %78k pornografia kontsumitzen dutela aurkeztu da. Honetan, emakumeen kontsumoaren frekuentzia denboran zehar mantentzen den

⁶ “Presentación abierta y cruda del sexo que busca producir excitación”

bitartean, gizonena murrizten doala ikusi zen. Horrela, gizonen kontsumoaren frekuentzia nerabezaroan %89,2 izatetik 41-70 urteen artean %53.2 izatera murrizten da. Halaber, Ballester eta Orte-k (2019) egindako ikerketan argitzen den bezala, mutil gehienek 16 urte bete baino lehen hasten dira pornografia kontsumitzen (%75,8), aldiz, oro har, neskek 16-18 urte bitartean hasten dira (%48.2). Bestalde, Löfgren eta Månsson-en (2010) ikerketan mutilek pornografiarekin izandako esperientziei buruz argi eta garbi mintzatzan duten bitartean, neskek jokabide zorrotzago eta negatiboagoak aurkezten dituzte. Emaitzen arabera, neskek ez dute pornografia gustuko, jendarteak ez duelako ondo ikusten pornografiak emakumeak erakartzea. Gainera, pornografiaren helburua ez da emakumeen desira sexualak asetzea, gizonen nahiak asetzea baizik, eta honetan antzetzten diren sexu-harremanak emakumeentzat bortitzak eta apalgarriak izaten dira. Azterlan honetan, neskek eta mutilak bat etorri ziren pornografiak emakumearen irudi estereotipatua partekatzen duen ideiarekin, non emakumeek gizonen nahiak ase behar dituzten.

2.5.2. Prostituzioa Praktika Ekonomiko Patriarkal Gisa

Sexu-industrian, prostituzioak gizonen pornografian irudikatuta ikusi duten guztia gauzatzeko askatasuna ematen dien lekua lirateke. Prostituzioa definitzean hau pertsona batek beste batekin sexu-harremanak izateagatik ordaintzeko ekintza dela esan daiteke. Haatik, definizio honek funtsezko alderdi bat ezkututzen du: prostituzioan aritzen diren pertsona gehienak emakumeak dira. Prostituzioaz hitz egiteak gizonen sexualitateari buruz hitz egitea dakar; berez, emakumeen gorputzak saltzen dira, hauek gizonen kontrolpean egoteko. Prostituzioa kapitalismoaren osagai nagusia jarraitzen du, eta horren arabera, nahi den guztia lor daiteke hau erosteko dirua izanez gero (Alario, 2018; Campo, 2021; Cobo, 2017; De Miguel, 2015; Gimeno, 2012).

Alario (2020) bezalako egileen arabera ezinezkoa da prostituzioa eta generoa bereiztea. Izan ere, prostituzioa kontsumitzen duten pertsonen %99,7 gizonak dira, eta prostituzioan aritzen direnen %90-a emakumeak. Datuen arabera, Espainian, gizonen %39k (10etik ia 4k) prostituta baten zerbitzuak ordaindu ditu. Hori dela eta, ezin da prostituzioaren kontsumoa gertakari isolatu gisa ulertu, hau arazo soziala denean. Cobo-ren (2017) aburuz, sistema prostituzionala gizonen nagusitasuna sustatzen duen egitura bati esker sostengatzen da. Ustiapen mota hau zigortzen duen sistema ideologiko edo sozialik ez egoteak gizonen honetara jotzea errazten du. Egia esanda, prostituzioan bezeroaren profila oso ezkutatuta dago eta ez da ia aintzat hartzen, prostitutaren figura protagonista nagusia den bitartean. Bezeroak negozio hau iraunarazteko gakoa direla kontuan hartuta, ezberdintasun hau kezkarria da (Lienas, 2006).

Hortaz, prostituzioaren inguruan hitz egitean, generoaren sozializazio prozesua agerikoa da. Izan ere, honetan maskulinitate eta feminitate hegemonikoak modu zorrotzean jarraitzen dira, hauen arteko botere-desparekotasuna adierazten. Horrela izanda, prostituzioan aritzen diren emakumeak

adeitsuak eta otzanak agertu behar dira, hauen bezeroen nahi eta desio sexualak arreta-iturri nagusia izanik (Alario, 2020; Ranea, 2016). Osborne (2009) eta Gimeno-ren (2012) ustez, errealitate baten eta genero-desparekotasunaren arteko harremana ukatu nahi denean, egoera hau gai puntual edo partikular bat bezala defendatzen da (esate baterako, senarrak emazteari emandako jipoiak justifikatzen denean, mozkortuta zegoela argudiatuz). Prostituzioa eta genero-desparekotasunaren arteko lotura ezeztatzea, honen existentzia ahalbidetzen duen errealitate sozial eta kulturala ezkutatzea dakar. Ondorioz, praktika hau justifikatzen da, aldaketa eta erreforma soziala gauzatzea zailduz.

3. Helburuak eta Hipotesiak

Hurrengo atal honetan, ikerketa hau gidatzen duten helburuak zehaztu dira, baita hauetatik ateratako hipotesiak ere:

1. **Helburua.** Generoaren arabera genero-sozializazioaren eta estereotipoen barneraketa identifikatu.

1. *Hipotesia:* Gizonek genero-rol tradizionalak emakumeak baino gehiago jarraitzen dituzte.

2. *Hipotesia:* Sexu-araudi bikoitzak emakumeetan gizonetan baino altuagoa da.

3. *Hipotesia:* Sexualitate positiboa generoen arteko ezberdintasunak azaltzen ditu.

4. *Hipotesia:* Emakumeenganako estereotipoen barneraketa generoen arteko ezberdintasunak erakusten ditu.

2. **Helburua.** Sexismo anibalentearen barneratzea aztertzea genero eta adinaren arabera.

5. *Hipotesia:* Gizonek emakumeak baino etsaitasunezko jarrera sexistak gehiago aurkezten dituzte.

6. *Hipotesia:* Sexismo onbera gazteen artean helduen artean baino nabariagoa da.

3. **Helburua.** Gizonen eta emakumeen sexualitatean dauden desberdintasunak identifikatzea.

7. *Hipotesia:* Genero-rolak gizonen sexualitatean emakumeen sexualitatean baino gehiago adierazten dira.

8. *Hipotesia:* Sexualitateaz hitz egiterakoan generoarekiko desberdintasunak aurkitzen dira.

9. *Hipotesia:* Sexu-harremanen inguruko ardurak generoaren arabera aldatzen dira.

4. **Helburua.** Pornografia eta prostituzioaren kontsumoa, eskaria eta hauekiko jarrerak ezagutzea, generoaren eta adinaren arabera.

10. *Hipotesia:* Pornografiaren kontsumo-maila eta frekuentzia generoen arabera ezberdina izango da.

11. *Hipotesia:* Gazteen pornografiaren kontsumo-maila eta frekuentzia altuago da helduekin konparatuta.

12. *Hipotesia:* Pornografiaren onarpena generoarekin du erlazioa.

13. *Hipotesia:* Pornografiarekiko kitzikapen-maila generoaren arabera aldatzen da.

14. *Hipotesia:* Prostituzioaren eskaera-maila eta onarpen-maila generoaren arabera aldatzen da.

4. Metodologia

4.1. Ikerketaren Diseinua

Ikerketa hau aurrera eramateko, zeharkako ikerketa kuantitatiboan oinarritutako diseinu deskribatzaile eta korrelaziozkoa erabili da.

4.2. Partaideak

Galdetegi honetan 124 pertsonak hartu dute parte. Hauen artean, %69,4-a (n= 86) emakumeak, %29-a (n= 36) gizonak eta %1,6-a (n= 2) pertsona ez-bitarrak izan dira. Adin-tarteari dagokionez, parte-hartzaileen %46,8-a (n= 58) 18-30 urteen artean dago eta %10,5-a (n= 13) 30-40 artean. Bestalde, galdetegia bete duten %15,3-a (n= 19) 40-50 adin-tartean dago, eta kopurua hau 50-60 adin-tartean errepikatzen da: %15,3-a (n= 19). Azkenik, %12,1-a (n= 15) 60 urte baino gehiago du. Sexu-orientazioari dagokionez, erantzunak honako hauek izan dira: partaideen %74,2-a (n= 92) heterosexualak dira, %19,4-a (n= 24) bisexuala da, % 4,8-a (n= 6) homosexuala eta %1,6-a (n= 2) beste sexu-orientazio mota batzuekin identifikatzen da. Herrialde edo eremu geografikoari buruz hitz egitekotan, Bizkaiko pertsonen kopurua %63,7-koa (n= 79) izan da, %11,4-a Gipuzkoakoa (n= 14) eta %3,2-a Arabakoa (n= 4). Horrez gain, %18,5-a (n= 23) Espainiako beste herrialdeetan dute jatorria eta %3,2-a (n= 4) Espainiatik kanpokoak dira.

Ikasketa-mailari dagokionez, erabiliko den lagina honako hau da: %2,4-ak (n= 3) doktoretzako ikasleak dira, %12,1-ak (n= 15) masterrekoak, %61,3-ak (n= 76) unibertsitate-graduak, %11,4-ak (n= 14) goi-mailako graduak edo batxilergoak dago, %4,8-ak (n= 6) erdi-mailako gradu batean eta %4,8-ak (n= 6), berriz, prestakuntza homologaturen bat egiten du. Azkenik, %1,6-ak (n= 2) DBH ikasten du eta, berriz ere, %1,6-ak (n= 2) ez du ikasketarik. Partaideei haien lan-egoeraren inguruan galdetzean %56,5-ak (n= 70) lanean ari direla aitortu du, eta %43,5-ak (n= 54) ezetz. Amaitzeko, parte-hartzaileen %43,5-ak (n= 54) bikote-harreman batean dagoela

erantzun du, %25,8-a (n= 32) ezkongabe dago, %20,2 (n= 25) ezkondata, %4,8 (n= 6) dibortziatuta, %2,4-ak (n= 3) konpromisorik gabeko harremana dute, %2,4-ak (n= 3) ez daki bere egoera sentimentala nola definitu, eta gainerakoak %0.9-a (n= 1) alarguna da.

4.3. Tresnak

Galdetegi *ad hoc* bat egin da aldagai soziodemografikoak galdetzeko, besteak beste; *generoa, adin-tartea, sexu-orientazioa, bizilekua, lan eta ikasketa-egoera eta egoera sentimentala*.

Generoaren Sozializazio Eskala (GSS) (Epstein, 2008). Eskala hau genero-sozializazioaren eragina neurtzen du. Jatorrizko eskalak 83 item ditu, eta hainbat azpieskaletan banatzen da. Hala ere, eskalaren hedadura dela eta, lan honetarako hobe egokitzen ziren hiru azpieskala osotasunean erabiltzea erabaki da, horrela 25 item biltzen: genero-rol tradizionalak (25, 35, 42, 59, 62, 69, 71, 72, 74 eta 80 itemak, $\alpha^7 = .80$), sexu-araudi bikoitza (16, 18, 27, 44, 53, 60, 70, 76, 78, eta 8 itemak, $\alpha = .83$), eta sexualitate positiboa (19, 26, 29, 51 eta 81 itemak, $\alpha = .31$). Erantzunak lau puntuko Likert eskalan ematen dira: (0) ezer ez, (1) pixka bat, (2) zerbait eta (3) asko. Hau egiteko 10-12 minutu inguru behar dira.

Gender Stereotyping and Adolescent Sexual Behavior (GSSB) (Foshee eta Bauman, 1992). Eskala honekin, nerabeen emakumeenganako estereotipoen barneraketa aztertu zen, urte batzuk geroago hauek gazteen sexu-harremanetan eragin ahal zuten ikertzeko. Beraz, eskala honetan emakumeenganako genero-estereotipoen barneratze-maila neurtzen duten 14 item aurkezten dira, estereotipo femenino tradizionalen (1, 2, 4, 6, 8, 13 eta 14 itemak, $\alpha = .73$) eta ez-tradizionalen (3, 5, 7, 9, 10, 11 eta 12 itemak, $\alpha = .45$) artean banatutakoak. Erantzunak lau puntuko Likert eskalan ematen dira: (4) erabat ados, (3) ados, (2) desados eta (1) erabat desados. Administrazio denbora 5 minutukoa da.

Ambivalent Sexism Inventory (ASI) (Glick eta Fiske, 1996). Eskala hau sexismo anibalentea neurtzen duten 22 itemek osatzen dute, etsaitasunezko sexismoan (2, 4, 5, 7, 10, 11, 14, 15, 16, 18 eta 21 itemak, $\alpha = .79$) eta sexismo onberan (1, 3, 6, 8, 9, 12, 13, 17, 19, 20 eta 22 itemak, $\alpha = .86$) banatutakoak. Erantzuteko Likert motako eskala ematen da: (0) oso desados, (1) zerbait desados, (2) pixka bat desados, (3) pixka bat ados, (4) zerbait ados eta (5) oso ados. Formulario hau betetzeko 10 minutu behar da.

Sexu-kezkekin Lotutako Jarreraren Eskala (ASCS) (Cowden eta Koch, 1995). Eskala hau pertsonen ardura sexualak neurtzeko garatu zen. Eskala originalak 30 itenez osatuta dago, eta hainbat azpieskaletan banatzen da. Hala ere, lan honetarako hiru azpieskala osotasunean hartu dira,

⁷ Lan honetan erabiliko diren eskalen fidagarritasuna jakiteko, hauen fidagarritasuna kalkulatu da soilik erabili diren datuak kontuan hartuta. Hau da, atal honetan aurkezten den alpha ez du jatorrizko eskala eta azpieskalen fidagarritasuna islatzen.

horrela 12 item lortzen. Honako eskala hauek erabili dira: genero-rolak (3, 11 eta 19 itemak, $\alpha = .016$), komunikazioa (4, 12, 20 eta 26 itemak, $\alpha = .20$) eta sexu-jarduera (8, 16, 24, 29 eta 30 itemak, $\alpha = .68$). Erantzuteko bost puntuko Likert eskala ematen da: (1) erabat ados, (2) ados, (3) ez ados-ez desados, (4) desados eta (5) erabat desados. Hau osatzeko 5 minutu inguru behar dira.

Hezkuntza Afektibo-sexualari eta Pornografiari (EASP) buruzko Ballester eta Ortek (2019) egindako galdetegia erabili da, pornografiaren kontsumoa eta hau gazteen artean dituen ondorioak identifikatzea bilatzen duena. Eskala hau oraindik baliozkotze-prozesuan dagoen arren, lanaren beharretara gehien egokitzen ziren itemak aukeratu dira. Horrela, eskalatik soilik 7 item erabili dira, zehazki pornografiaren erabileraren frekuentzia (3) zergatia (1 eta 2) eta honen alderdi positiboak (4) eta negatiboak (5, 6 eta 7) ezagutzera bideratutakoak. Erantzunak aukera posible anitzekoak ziren, hala nola: bai, ez, ez daki/ez du erantzuten, etab. Eskalaren administrazio denbora 3-5 minutukoa da.

Pornografiarekiko Jarreraren Eskala (AHP) (Monferrer eta Flor, 2015). Pertsonak pornografiarekiko dituzten jarrerak neurtzeko sortu zen. Eskala 32 item osatzen dute, eta hauek lau azpieskaletan banantzen dira. Hala eta guztiz ere, lanaren interesei hobeto erantzuten duten azpieskala osoak erabili dira, zehazki: kitzikapena (4, 5, 13, 14, 18, 22 eta 23 itemak, $\alpha = .31$) eta onarpen- soziala (7, 8, 21, 24, 25, 26, 27, 28, 29 eta 30 itemak, $\alpha = .69$). Horrela 17 item bildu dira eta hauek erantzuteko bost aukerako Likert eskala erabiltzen da: (1) erabat desados, (2) desados, (3) ez ados, ez desados (4) ados eta (5) erabat ados. Hau betetzeko 10-12 minutu behar dira.

Azkenik, galdetegi *ad hoc* bat egin da, prostituzioari buruzko galdera zehatzak aurkitzeko zailtasunaren aurrean. Hau egiteko 16 baieztapen egin dira, hala nola: “*nortzuk dira prostituzioa kontsumitzeko joera handiagoa dutenak?*” edo “*putak haien burua errespetatzen ez duten emakumeak dira*”. Hauek erantzuteko bost aukerako Likert eskala eta erantzun ezberdineko aukerak eskaini dira: (1) erabat ados, (2) ados, (3) ez ados, ez desados (4) desados eta (5) erabat desados. Bestalde, aukera anitzeko erantzunen artean honako hauek aurkitu ahal dira: emakumeak, gizonak, emakumeentzat dirua lortzeko modu erraza da, etab. Hau osatzeko 10-12 minutu inguru behar dira.

4.4. Prozedura

Aurrera eramán den galdetegia “Google Forms” plataformaren bidez sortu da. Hainbat ataletan banatuta dago eta bakoitzaren hasieran hau zuzen erantzuteko jarraibideak daude (ikusi 1. eranskinak). Formularioarekin hasi aurretik, hau erabat borondatezkoa eta anonimoa dela jakinarazten da. Horretarako, Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu

Orokorrean xedatutakoa bete da. Honen arabera, datu pertsonalak parte-hartzaileen baimenarekin erabiltzen dira, eta hauek sustapen eta zabalkunde helburu bakarra dute. Hortaz, lan hau amaitu ondoren, datu hauek ezabatu egingo dira. Parte-hartzaileek galdetegia edozein uneetan egin ahal zuten, eta galdera gehienek nahitaezko erantzuna eskatu arren, baztuk ez ziren bete beharrekoak. Ikerketa honetan, tresna metodologikoa talde heterogeneo, zabal eta orokor bati aplikatzea bilatzen zen. Hortaz, galdetegia hedatzeko mezularitza-zerbitzua betetzen duten aplikazioak erabili dira, hau zoriz zabaltzen eta kate-teknika erabiltzen, horrela, “elur bola” metodoaz baliatuz (Taylor eta Bogdan, 1986).

4.5. Datuen Analisia

Eskuratu diren datuak aztertzeko honako plataformak erabili dira: Google Forms, Excel eta SPSS. Horrela, Forms-ean bildutako datuak Excel-ean zifratu (kuantifikatu) ondoren, SPSS-ko fitxategi batera inportatu dira. Behin horretan, akatsak doitu eta emaitzak aztertu ahal izan dira, Windowserako SPSS b.28 (SPSS, NY, Chicago, IL) analisi estatistikoaren programa erabiliz.

Behin erantzunak bilduta, datu batzuk galdu egin dira. Alde batetik, pertsona ez bitarrak biltzen zituen lagina baztertzea erabaki da, izan ere, hau oso txikia zen ($n= 2$). Horrez gain, datuak aztertzerakoan pertsona batzuen erantzunak zorizkoak zirela ondorioztatu da, berez, haien erantzunak behin eta berriz errepikatzen ziren. Horrela, 6 parte-hartzaile galdu egin dira, 118 partaideen lagina utsiz. Halaber, erantzun anitzeko eskala batzuetan ez dira erantzunik jaso, galdera batzuei erantzutea ez zelako baitezpadakoa, horrela, erantzun kopuru baxua kontuan hartuta, galdera batzuk kendu egin dira. Honetaz gain, Cronbachen Alfa aztertzean erabilitako azpieskala batzuk fidagarritasun-maila baxua erakutsi dute, beraz, hauek ez dira analisatu. Aztertu gabe geratu diren azpieskalak honako hauek izan dira: *sexualitate positiboa* ($\alpha= .31$) genero-sozializazioaren eskalatik, *estereotipo femenino ez-tradizionalak* ($\alpha= .45$) genero-estereotipoak eta nerabeen portaera sexuala eskalatik, *genero-rolen* ($\alpha= .016$) eta *komunikazioaren* azpieskalak ($\alpha= .2$) sexu-kezkekin zerikusia duten jarrerako eskalatik, eta *kitzikapenerako* ($\alpha= .31$) azpieskala pornografiarekiko jarreraren eskalatik.

Datuak aztertu aurretik, hauek normaltasun eta homoskedastikotasun baldintzak betetzen zituztela egiaztatu da. Honi esker, proba parametrikoko edo ez parametrikokoak egitea erabaki ahal izan da. Normaltasuna aztertu ondoren, proba parametrikokoak erabiltzea erabaki da (t proba batez bestekoa alderatzeko), normaltasun eta homoskedastikotasun-baldintzak guztiz betetzen ez badira ere (Montilla y Kromrey, 2010). Zehatzago esateko, Kolmogorov-Smirnov-en estatistikoek lortutako datuek banaketa normal bat ez jarraitu arren, asimetria eta kurtosia kasu gehienetan ez dira letik gorakoak izan, beraz, proba parametrikokoak aurrera eraman dira.

Analisia egin baino lehen, aldagai batzuen kodifikazioa eta kategorizazioa egin da. Hain zuzen

ere, galdetegian parte-hartzaileen adina galdetzean, bost erantzun-aukera zeuden: 18-30, 30-40, 40-50, 50-60 eta 60 baino gehiago. Datuen erabilera errazteko, aldagai hauek kategorizatu egin dira, berriak sortzen. Horrela, adina 18-40 eta 41-70 adin-tarteetan murriztu da. Era berean, generoa, adina, bizilekua eta antzeko datuak kodifikatu egin dira. Hau da, zenbakiak esleitu zaizkie datu-basea osatzen duten aldagaiei. Behin hau guztia eginda, datuak aztertzeke, lehenik eta behin, frekuentzia taulak erabili dira hainbat aldagaien baliokopurua eta ehunekoa ezagutzeko. Honen ostean, kontingentzia taulak egin dira, aldagaien arteko asoziazioa ezagutzeko, *Chi-karratu*-aren froga eginez eta *Vcramer* tamainaren efektua kalkulatzuz. Azkenik, *t-student*-ko proba eta *dcohen* egin dira, aldagai ezberdinen arteko desberdintasun esanguratsuak eta tamainuaren efektua kalkulatzeko.

5. Emaitzak⁸

5.1. Genero Sozializazioa: Genero-rol Tradizionalak eta Sexu-araudi Bikoitza

3. taula honetan ikusten den bezala, genero-rol tradizionalak eta generoa alderatzean ezberdintasun esanguratsuak aurkitu dira, gizonen batez bestekoa emakumeena baino altuagoa izanda ($B=5.05$ vs $B=2.65$). Honen arabera, gizonak genero-rol tradizionalak emakumeek baino barneratuagoak dituzte, tamainuaren efektua altuarekin. Kontran, sexu-araudi bikoitzean ($t=0.51$, $p=0.30$) ez dira ezberdintasun esanguratsuak islatu.

3. Taula

Genero-rol Tradizionalak eta Generoa

Genero-rol Tradizionalak	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
Emakumeak	2.65	2.17	-4.02	0.001	0.80
Gizonak	5.05	4.35			

*Oharra: p<.001***; p<.01**; p<.05**

5.2. Emakumeenganako Estereotipo Tradizionalen Barneratzea

Aurkezten den 4. taulak azaltzen duenez, emakumeen inguruko estereotipo tradizionalen barneratzea generoarekin desberdintasun esanguratsuak azaldu ditu, tamainuaren efektua txikiarekin. Honetan, batez besteko altuena gizonen artean eman da ($B=16.50$ vs $B=14.97$), hau da, hauek emakumeen inguruko estereotipo tradizionalak barneratuagoak dituzte.

⁸ Aldagaien artean ezberdintasun esanguratsuak dauden egiaztatzeke proba egitean (*t student*), alde esanguratsurik jaso ez dituzten taulak eranskinetan atxikitu dira (4. eranskinak).

4. Taula

Emakumeen Estereotipo Tradizionalak eta Generoa

Emakumeen Estereotipo Tradizionalak	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
Emakumeak	14.97	3.10	-2.02	0.02	0.41
Gizonak	16.50	4.95			

*Oharra: p<.001***; p<.01**; p<.05**

5.3. Sexismo Anbibalentea: Etsaitasunezko Sexismoa eta Sexismo-onbera

Etsaitasunezko sexismo eta genero ($t=0.36$, $p=0.360$) artean ez dira desberdintasun esanguratsuak aurkitu. Aldiz, sexismo-onbera adinarekin ezberdintasun esanguratsuak aurkeztu ditu, efektu tamaina txikia izaten. 18-40 adin-tartea batez bestekoa altuagoa aurkezten du ($B=39.27$ vs $B=36.24$), sexismo onbera maila altuagoa adierazten.

5. Taula

Sexismo Onbera Adinarekin Alderatuta

Sexismo Onbera	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
18-40	39.27	8.52	1.71	0.045	0.34
41-70	36.24	9.52			

*Oharra: p<.001***; p<.01**; p<.05**

5.4. Sexualitatea: Sexu-harremanak

Sexu-harremanak generoarekiko desberdintasun esanguratsuak aurkeztu ditu, efektu tamaina txikiarekin. Emakumeek batez besteko altuagoa azaldu dute ($B=19.20$ vs $B=17.74$). Honen arabera, emakumeek sexu-harremanen inguruko ardura gutxiago azaltzen dituzte.

6. Taula

Generoaren Eragina Sexu-Harremanetan

Sexu Harremanak	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
Emakumeak	19.20	3.40	1.83	0.036	0.42
Gizonak	17.74	3.83			

*Oharra: p<.001***; p<.01**; p<.05**

5.5. Pornografiaren Inguruko Jarrerak eta Iritziak

Hurrengo 7. taulak generoa⁹ eta adina *pornografiaren kontsumoarekin* asoziazio esanguratsuak adierazi dituztela azaltzen du. Genero eta adinaren efektuaren tamaina ertain-txikia izan da. Taulan ikusten den bezala, ezetz erantzunean emakumeek kopuru eta ehuneko altuena aurkeztu dute, beste erantzun posibleekin (*bai eta ez daki/ez du erantzuten*) eta gizonekin konparatuta. Adinaren kasuan, 18-40 bitartekoak baietz erantzunean kopuru eta ehuneko altuena du.

7. Taula

Pornografiaren Kontsumoa Genero eta Adinaren Arabera

P.K.G.A.	<i>E (n)</i>	<i>%</i>	<i>G (n)</i>	<i>%</i>	<i>X²(2)</i>	<i>p</i>	<i>Vcramer</i>
Bai	26	31.7	27	75	19.14	0.001	0.40
Ez	54	65.9	9	25			
E.D./E.E. ¹⁰	2	2.4	-	-			
P.K.A.A	<i>18-40 (n)</i>	<i>%</i>	<i>41-70 (n)</i>	<i>%</i>	<i>X²(2)</i>	<i>p</i>	<i>Vcramer</i>
Bai	41	58.6	14	28	13.58	0.001	0.34
Ez	27	38.6	36	72			
E.D./E.E.	2	2.9	-	-			

*Oharra: p<.001***; p<.01**; p<.05**

Oharra: taula hauetako izenburuak laburtuta agertuko dira. Hortaz, P.K.G.A. pornografiaren kontsumoa generoaren arabera izenburuari dagokio, eta P.K.A.A. pornografiaren kontsumoa adinaren arabera.


⁹ Emaizta-prozesuan zehar E emakumeak ordezkatzeko erabiliko da, eta G gizonentzat.

¹⁰ E.D./E.E. laburdura erabiliko da Ez daki/Ez du erantzuten erantzunaren aukera ordezteko.

Bestalde, eranskinetako D. taulan begiratu gero, *pornografiaren kontsumoaren zergatia* adinarekin asoziazio esanguratsuak ($X^2(3)=14.39, p=0.002, V_{cramer}=0.47$) baino ez duela izan egiazta daiteke. Izan ere, erantzun kopuru handiena jaso duen erantzuna *masturbatzeko* izan da, adintarteen arteko aldea erakusten ($18-40=35$ vs $41-70=11$). *Pornografiaren kontsumoaren frekuentzia* generoa eta adinarekin asoziazio esanguratsuak aurkeztu ditu (E. taula). Generoaren kasuan ($X^2(4)=29.15, p=0.001, V_{cramer}=0.50$) tamainaren efektua ertain-altua izan da, eta adinean ($X^2(4)=16.55, p=0.002, V_{cramer}=0.37$) ertaina. Hain zuzen ere, hurrengo 1. irudian ikusi daitekeen bezala, generoan eta adinean eredu bera errepikatzen da: *noizean behin* eta *ez daki/ez du erantzuten* gehien errepikatzen diren erantzunak dira.

1. Irudia

Pornografiaren Kontsumoaren Frekuentzia Adina eta Generoaren Arabera



Oharra: nik egindako grafikoa

Ildo beretik, *pornografiak dituen ondorio positibo* eta generoaren ($X^2(5)=25.02, p=0.015, V_{cramer}=0.46$) arteko erlazio esanguratsua aurkitu dira, tamaina efektua ertaina izaten (F. taula). Izatez, gustura *masturbatzea* bi generoek gehien errepikatu duten erantzuna izan da ($E=11$ vs $G=12$). Halaber, *pornografiak ondorio positiborik ez dituela* erantzun duten emakumeen kopurua gizonena baino altuagoa izan da ($E=17$ vs $G=8$). *Pornografiaren ondorio negatibo* dagokionez, hau generoarekiko ($X^2(5)=21.85, p=0.005, V_{cramer}=0.43$) erlazio esanguratsua adierazi ditu, eta tamaina efektua ertaina izan da. Erantzun posibleetatik, *asperdura* erantzun kopuru altuena jaso ditu ($E=21$ vs $G=11$). Aldiz, *ondorio positiboak* eta adina erlazio esanguratsuak ez adierazi arren ($X^2(5)=21.41, p=0.065$), *ondorio negatiboak* ($X^2(5)= 22.66, p=0.004, V_{cramer}= 0.43$)

adinarekiko erlazio esanguratsuak adierazi dituzte, tamaina efektua ertaina izaten. Berriz ere, *asperdura* gehien errepikatu den erantzun aukera izan da ($E=27$ vs $G=6$).

Era berean, 8. taulak azaltzen duen bezala, generoa eta adina asoziazio esanguratsuak aurkeztu dute *pornografiak emakumeen irudi sozialean eragin negatiboak* dutela baieztatu dutenen artean. Generoan, zein adinean, tamainaren efektua ertaina izan da. Aldiz, *pornografiak gizonen irudi sozialean eragin negatiboak* dutela baieztatu dutenen eta genero ($X^2(2)=5.45$, $p=0.065$) edo adinaren ($X^2(2)=1.16$, $p=0.56$) artean ez dira asoziazio esanguratsuak aurkitu.

8. Taula

Emakumeen Irudi Soziala Genero eta Adinarekin Alderatuta

E.I.S.G.A.	<i>E(n)</i>	%	<i>G(n)</i>	%	$X^2(2)$	<i>p</i>	<i>Vcramer</i>
Bai	69	84.1	21	58.3	13.52	0.001	0.34
Ez	7	8.5	13	36.1			
E.D. /E.E.	6	7.3	2	5.6			
E.I.S.A.A.	<i>18-40(n)</i>	%	<i>41-70(n)</i>	%	$X^2(2)$	<i>p</i>	<i>Vcramer</i>
Bai	62	88.6	30	60	13.37	0.001	0.33
Ez	6	8.6	14	28			
E.D. /E.E.	2	2.9	6	12			

Oharra: $p < .001$ ***; $p < .01$ **; $p < .05$ *

Oharra: E.I.S.G.A.= emakumeen irudi soziala generoaren arabera. E.I.S.A.A.= emakumeen irudi soziala adinaren arabera.

9. taulan ikusten den bezala, *pornografiaren onarpenak* eta generoak ezberdintasun esanguratsuak aurkezten dituzte, eta tamainu efektua ertain-altua izan da. Kasu honetan, emakumeek gizonen baino batez besteko altuagoa dute ($B=28.71$ vs $B=25$), onarpen maila txikiagoa adierazten.

9. Taula

Pornografiaren Onarpena eta Generoa

Pornografiaren Onarpena	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
Emakumeak	28.71	5.51	3.47	0.001	0.70
Gizonak	25	4.99			

*Oharra: p<.001***; p<.01**; p<.05**

5.6. Prostituzioaren Kontsumoa eta Onarpen-maila¹¹

Prostituzioa kontsumitzeko joeren ($X^2(2)=0.298, p=0.86$) inguruan galdetzean ez dira erlazio esanguratsuak azaldu, eta bi generoek gizonek prostituzioa kontsumitzeko joera handiagoa dutela erantzun dute ($E=67$ vs $G=29$). Hari beretik, ez dira erlazio esanguratsurik aurkitu *prostituzioaren kausen* itemaren eta generoaren ($X^2(3)=8.87, p=0.45$) artean. Honetan erantzun posible anitzak zeuden (kontsultatu eranskinetako J. taula), baina erantzun kopuru gehien jaso dituzten aukerak honako hauek izan dira: *emakumeentzat dirua lortzeko modu erraza da* ($E=17$ vs $G=4$) eta *bizitza osoan zehar existituko den negozioa da* ($E=37$ vs $G=15$).

Honen ostean, 10. taulan ikusten den bezala, *prostitutekin gehiago gozatuko nuke* itemaren eta generoaren arteko asoziazio esanguratsuak aurkitu dira eta tamainaren efektua ertaina izan da. Izan ere, erantzunetan gehien errepikatu diren aukerak *ez ados-ez desados* ($E=12$ vs $G=1$) eta, batez ere, *erabat ados* ($E=59$ vs $G=27$) izan dira. Bestalde, *putek maitasunik edo arrakastarik aurkitu ez duten emakumeak dira* galderak ez ditu generoarekiko asoziazio esanguratsuak azaldu ($X^2(4)=5.75, p=0.21$).

10. Taula

Sexuaz Prostitutekin Gehiago Gozatuko Nuke

S.P.G.G.N.	<i>E(n)</i>	%	<i>G(n)</i>	%	$X^2(4)$	<i>p</i>	<i>Vcramer</i>
Erabat desados	-	-	1	2.8	11.61	0.02	0.31
Desados	1	1.2	4	11.1			
Ez ados, ez desados	12	14.6	1	2.8			

¹¹ Atal honetan zehar aurkezten ez diren taulak 4. eranskinetako 4.4. puntuan aurkitu daitezke.

Ados	10	12.2	3	8.3
Erabat ados	59	72	27	75

Oharra: $p < .001$ ***; $p < .01$ **; $p < .05$ *

Oharra: S.P.G.N.= sexuaz prostitutekin gehiago gozatuko nuke

Hurrengo 11. taulan ikusten den bezala, *sexu-harremanak izateko ordainduko nuke* itemak generoarekin asoziazio esanguratsuak aurkeztu ditu. Honetan, gehien errepikatu den erantzun-aukera *erabat ados* izan da, non emakumeek gizonak baino erantzun kopuru gehiago bildu duten ($E=69$ vs $G=23$). Emakumeek *sexu-premia gutxiago izatean ez dute prostituziorik kontsumitzen* itema eta generoa ez dute erlazio esanguratsuak aurkeztu ($X^2(4)=4.52$, $p=0.34$). Hala ere, gehien errepikatu diren erantzunak *ados* ($E=25$ vs $G=6$) eta *erabat ados* ($E=33$ vs $G=17$) dira. Modu berean, *prostituzioan emakume gehienek egin nahi ez dituzten sexu-praktikak egiten dira* itemaren eta generoaren artean ez dira erlazio esanguratsuak aurkitu ($X^2(4)=0.77$, $p=0.94$). Arestian bezala, gehien errepikatu diren erantzunak *ez ados-ez desados* ($E=21$ vs $G=9$) eta, batez ere, *erabat ados* ($E=24$ vs $G=8$) izan dira, generoen arteko alde handiarekin.

11. Taula

Sexu-harremanak Izateko Ordainduko Nuke

S.H.O.N.	E(n)	%	G(n)	%	$X^2(4)$	p	Vcramer
Erabat desados	-	-	2	5.6	9.51	0.05	0.28
Desados	4	4.9	4	11.1			
Ez ados, ez desados	3	3.7	1	2.8			
Ados	6	7.3	6	16.7			
Erabat ados	69	84.1	23	63.9			

Oharra: $p < .001$ ***; $p < .01$ **; $p < .05$ *

Oharra: S.H.O.N.= Sexu-harremanak Izateko Ordainduko Nuke

Putek ez dute beren burua errespetatzen galdera eta generoa ez dute erlazio esanguratsuak azaldu ($X^2(4)=2.72$, $p=0.60$), honetan gehien errepikatu den erantzuna *erabat ados* izan da, non emakumeek gizonak baino adostasun gehiago azaldu duten ($E=63$ vs $G=27$). Hari beretik, ez da aurkitu erlazio esanguratsurik generoaren eta *ez nuke ordainduko sexu-harremanak izateko* itemaren artean ($X^2(4)=6.38$, $p=0.172$). Kasu honetan, gehien errepikatu den erantzuna *erabat*

desados izan da, eta emakumeek erantzun kopuru altuena adierazi dute ($E=61$ vs $G=22$). *Prostituzioa beste edozein lan bezalakoa da* galderak ez du asoziazio esanguratsurik aurkeztu ($X^2(4)=7.84, p=0.06$), erantzun aukera anitzetatik, kopuru gehien azaldu dituztenak honako hauek izan dira: *ez ados-ez desados* ($E=22$ vs $G=8$), *ados* ($E=20$ vs $G=8$) eta *erabat ados* ($E=31$ vs $G=9$). Azkenik, *prostitutak lotsagarriak dira jendartearentzat* itemaren eta generoaren ($X^2(4)=4.23, p=0.37$) artean ez dira asoziazio esanguratsuak aurkitu, eta gehien errepikatu den erantzuna *erabat ados* izan da ($E=52$ vs $G=26$), non emakumeek emaitza altuenak dituzten.

6. Eztabaidak eta Ondorioak

Hasi baino lehen honako hau argitu behar da: hirugarren, zazpigarren, zortzigarren eta hamahirugarren hipotesien datuak ezin berresteko arrazoia azpieskalek behar besteko fidagarritasunik eman ez dutela izan da, beraz, ez dira datuen azterketarik egin.

Behin hau jakinda, aurkezten den *lehenengo hipotesia* egiaztatu da. Honen arabera, gizonek genero-rol tradizionalak barneratuagoak dituzte. Duela urte batzuk, Huston (1985) edo Nelson eta Keith (1990) bezalako autoreek gizonek genero-rolak emakumeek baino barneratuagoak zituztela adierazi zuten. Denborak aurrera egin ahala, Epstein (2008), Hartog eta Rios (2003) eta Saldivar et al. (2015) ikerketek, emakumeak genero-rol tradizionalak ezarritako arauak gainditzen saiatzen diren bitartean, gizonek jendarteak ezarritako rolak gehiago eusten dituztela baieztatu zuten. Aldiz, *bigarren hipotesia* berretsi ez den arren, emakumeen batez bestekoa gizonena baino handiagoa da, Epstein-ekin (2008) bat eginez. Egilearen arabera, emakumeek sexu-araudi bikoitza indartzen duten mezu gehiago jasotzen dituzte. Berez, genero-sozializazioan generoen sexualitatea bereizten da, emakumeena gizonena baino gehiago mugatuz. Bestalde, *laugarren hipotesia* egiaztatzen da, eta honen arabera, emakumeenganako estereotipoen barneraketa generoarekiko ezberdintasunak erakusten ditu. Arestian aipatutako ikerketen emaitzen arabera, genero-sozializazio prozesuan zehar, gizonek genero-rol eta estereotipoak mantentzera zuzenduta dauden mezu gehiago jasotzen dituzte. Hortaz, logikoa da gizonek jendarteak ezarritako genero-estereotipoak askoz barneratuagoak izatea, bai estereotipo femeninoak zein maskulinoak (Epstein, 2008; Hartog eta Rios, 2003; Saldivar et al., 2015).

Bosgarren hipotesiaren arabera, gizonek etsaitasunezko jarrera sexista gehiago dituzte, baina hau ez da baieztatu. Hau ez dator bat hainbat ikerketatan agertutakoarekin, non gizonek, emakumeekin alderatuta, etsaitasunezko sexismo-maila altuagoa aurkezten dutela erakusten den (Expósito et al., 1998; Glick et al., 2000; Lameiras eta Rodriguez-Castro, 2003; Rodriguez-Castro et al., 2010). Hala ere, Glick eta Fiske (1996), Glick et al. (2004) edo Masser eta Abrams (2004) bezalako azterlanen arabera emakumeek, gizonekin alderatuta, etsaitasunezko sexismo-maila altuagoa dute. Hau generoaren sozializazio-prozesuari egotzi ahal zaio, honek pertsonen

sexismoa barneratzeko eta adierazteko duten moduan eragin duelako. Horrela, emakumeek haien generoarekiko etsaitasunezko jarrera sexistak ahalbidetzen duten jendarte arauen eragina jaso eta hauek barneratzen dituzte. Kontran, *seigarren hipotesia* berretsi da: sexismo onbera gazteetan helduetan baino nabariagoa da. Hainbat azterlanen emaitzen arabera, gazteek sexismo onberaren maila altuagoak aurkezten dituzte (Expósito eta Moya, 2001; Glick eta Fiske, 1996; Lameiras eta Rodriguez-Castro, 2002,2003; Rodriguez-Castro et al., 2010). Honen arrazoa gazteek sexismoaren ondorioez eta eraginaz guztiz ez jabetzea izan daiteke edo ez dutelako hainbeste kontutan hartzen desiragarritasun soziala.

Honetaz gain, *bederatzigarren hipotesia* berretsi egin da, eta emakumeek sexuaren inguruko ardura gutxiago aurkeztu dituzte. Bildutako emaitzak ez datoz bat literatura zientifikoa dioenarekin. Izan ere, sozializazio-prozesuak emakumeei besteen onarpena ezinbesteko bezala aurkezten die, eta gizonen desio-sexualak asetzeko prest egon behar direlaren ideia sustatzen du (Aguilar et al., 2013; Alario, 2020; Escalante et al., 2008; Galet eta Alzas, 2015; Garcia-Vega et al., 2005; Herrera, 2000; Rebollo eta Hornillo, 2010). Hala ere, Butler-en (1990) aburuz, estigma sozialek eragina izan dezakete emakumeek haien sexualitateari buruzko kezak partekatzeke momentuan. Egilearen arabera, emakumeen sexualitatearen inguruko zenbait jendarte-egiturek hauei lotsa, erruduntasuna edo epaituak izateko beldurra sortu ahal die, eta horrek emakumeak haien ardura sexualen adierazpena mugatzera eramaten ditu.

Hamar eta hamaikagarren hipotesiak baieztatu dira, hauetan generoa pornografiaren kontsumo-mailan eta maiztasunean eragina duela eta gazteek pornografia gehiago kontsumitzen dutela adierazten zen. Hipotesi hauek bat datoz Ballester eta Gil-en (1994) ikerketarekin, honetan gizonen pornografiaren kontsumo-maila eta frekuentzia emakumeena baino askoz altuagoa dela frogatzen zen. Hauen arabera gizonak pornografia kontsumitzeko joera handiago izan eta lehenago hasi arren, denbora pasa ahala, hauen pornografikoaren erabilera behera egiten du. Urte batzuk geroago, Ballester eta Orte-k (2019) aurrekoa sendotzeaz gain, gizonak emakumeek baino lehenago hasten direla pornografia kontsumitzen adierazi zuten. Horrela, pornografia gehien kontsumitzen dutenek gizon gazteak izango lirake. Ildo beretik, *hamabigarren hipotesia* egiaztatzen da, honen arabera, pornografiaren onarpena soziala generoarekin lotuta dago. Emaitzak ikusita emakumeek gizonak baino arbuio handiagoa aurkezten dute pornografiarekiko. Erantzun hauek Löfgren eta Månsson-ek (2010) egindako lanarekin bat egiten dute. Honetan emakumeek, gizonekin alderatuta, pornografiari buruz hitz egiterakoan deserosotasun handiagoa azaltzen zuten. Izan ere, sozialki ez dago ondo ikusita emakumeek pornografiak gozatzea. Hortaz, emakumeek pornografiarekiko gaitzespen handiagoa sentitzen eta erakusten dute. Gainera, pornografian ematen diren egoera gehienak iraingarriak dira emakumeentzat.

Azkenik, *hamalaugarren hipotesia* prostituzioaren eskaera eta onarpen-maila generoaren arabera aldatzen direla aurkezten zuen. Hipotesi hau berretsi egin da, emakumeen aldetik eskaera altuagoa eta onarpen baxuagoa azaltzen. Hala ere, emaitz hauek ez doaz bat Alario (2020), Cobo (2017) eta Lienas-en (2006) ikerketekin. Egileek prostituzioaren kontsumoa eta eskaera gizonen artean emakumeen artean baino askoz handiagoa dela baieztatzen dute. Emakumeek prostituzioarekiko onarpen-maila txikia, emaitzetan islatzen den bezala, bat dator Alborchek (2002) eta Hernandezek (2021) planteatutakoarekin. Izan ere, autoreen arabera, emakumeenganako diskriminazioa ez da soilik generoen artean gertatzen, jasaten duten sozializazioa haien arteko lehia eta zapalkuntza ere sustatzen duelako. Halaber, Simone de Beauvoir-en (1949) ustez, arau sozialek emakumeei ezartzen dizkieten sexualitatearekin eta moraltasunarekin lotutako estigmatizazioaren ondorioz, emakumeek prostituzioarekiko jarrera kritikoagoa izan dezakete.

6.1. Aurkitutako limitazioak eta etorkizunerako ildoak

Ikerketa honi dagokionez, hainbat limitazio aurkitu dira. Hasteko, lagina; honen oreka eta errepresentagarritasunagatik. Izatez, parte-hartzaileen generoa oso desberdina izan da: 82 emakume eta 36 gizon. Gainera, adin tarteak oso zabalak ziren, beraz, hurrengo ikerketei begira komenigarria lirateke adin tarteak hobeto zehaztea. Erantzunak lortzeko "elur-bolaren" prozesua erabili da, eta hau datuak biltzeko erabilgarria izan arren, parte-hartzaileen kontrola galtzen da, emaitzetan eragiten eta hauek mugatuz. Hala, etorkizunari begira, fenomeno hau aztertzeko interesgarria izango litzateke estrategia metodologiko ezberdinak erabiltzea: elkarrizketa erdi-egituratuak, eztabaida taldeak, etab.

Bestalde, lan honen limitazio nagusia erabilitako eskalak izan dira. Azkenengo hipotesiei erreferentzia eginez, erabilitako itemak ez dira eskala balidatu batekoak, beraz datuen fidagarritasuna eta baliotasuna kolokan jartzen da. Izan ere, nik sortutako galderak izan dira, prostituzioari buruzko galdera zehatzak aurkitzeko zailtasunaren aurrean eta honen inguruko teoria irakurri ostean. Gainera, erabilitako eskala batzuen luzeera zela eta, hauetatik soilik azpieskala zehatz batzuk aukeratu ziren. Azpieskala hauek ikerketarekin bat zetozen arren, batzuk oso item gutxi zituzten, eta ez dute behar adinako fidagarritasunik eman. Bestalde, erabilitako eskala batzuk aspaldikoak ziren, beraz, baliteke gaur egungo ikerketa bat egiterakoan eskala berriagoak erabiltzea onena izatea, zaharkituak egotearen arriskua saihesteko. Honetaz gain, Ballester eta Orte-ren (2019) pornografia neurtzeko eskala baliozkotze-prozesuan dago oraindik, hala ere, pornografia neurtzeko aurkitutako eskala kopuru txikia zela eta hau erabiltzea erabaki zen. Hau guztia kontuan hartuta, etorkizunean gomendagarria litzateke erabiltzen diren eskalek berriagoak izatea eta balio-maila handiagoa aurkeztea.

Lan honen azken ondorio gisa, genero-sozializazioak pornografiaren eta prostituzioaren kontsumoan duen eragina lantzea oso konplexua dela jakin behar da. Hortaz, hau sortu ditzakeen beharrak erantzuteko diziiplina anitzeko eta zeharkako lana behar da. Gizarte-hezkuntzatik gai honi hainbat arlo ezberdinetatik heldu ahal zaio. Alde batetik, hezkuntza-formaletik, kalitatezko hezkuntza afektibo-sexuala sustatzea ezinbestekoa da, hau generoaz, sexualitate mota anitzaz, baimenaz eta prebentzioaz hitz egiteko aukera ematen digulako. Espainian, otsailaren 28ko 1/2023 Lege Organikoaren arabera hezkuntza afektibo-sexuala, bere dimentsio guztietan, derrigorrezko hezkuntza osoan zehar gaitegiaren parte bat da, baina gure erantzukizuna da hau lantzen jarraitzea. Horrela, generoen arteko errespetuan eta berdintasunean oinarritutako sexualitate batean heztera bideratuta dauden programak eta planak sortzeko. Bestalde, hezkuntza ez formalean, generoen estereotipoak eta rolak deseraikitzen dituzten programak, planak eta zerbitzuak garatu ahal izateko, beharrezkoa da gai hau sakonago ikertzea. Hau egiteko, gizarte hezkuntzako graduetan, eta, oro har, biztanleriarekin lan egitera bideratutako gradu guztietan, beharrezkoa da genero-ikuspegiarekin bat datozen gaitasunak eta konpetentziak txertatzea eta garatzea. Hau ez da soilik zeharka egin behar, modu zuzenean ere landu behar da, etorkizuneko profesionalak genero sozializazioaren eraginaz jabetzeko. Azken batean, gure erantzukizuna da giza-eskubideak bermatzea.

7. Etika Profesionala eta Datuen Babesa

Lan hau etika profesionalaren printzipioak eta parte-hartzaileen oinarritzko eskubideak errespetatuz egin da. Galdetegiak parte-hartzaileen erantzuteko askatasuna eta autonomia ahalbidetzen zituen, baita datuen konfidentzialtasuna ere. Gizarte-hezkuntzan, etika profesionala eta datuen babesa funtsezkoak dira. Etikak lan egiten dugun arlo guztietan arduraz eta profesionaltasunez jokatzera behartzen gaitu, eta hau egiteko kode deontologikoa¹² jarraitu eta errespetatu behar dugu. Gainera, datuen babesak lan egiten dugun erabiltzaileen pribatutasuna eta anonimotasuna bermatzen ditu, eta konfiantza eta errespetuzko harreman bat sortzea ahalbidetzen digu.

¹² Kode deontologikoa printzipio eta arau etikoen multzo bat da, eta profesionalak arlo jakin batean dituzten erantzukizunak eta betebeharrak ezartzen ditu, haien jokabide profesionala eta erabiltzaileekin, lankideekin eta, oro har, jendartearekin duten harremana arautzen duten arauaz gain.

8. Erreferentzia Bibliografikoak

- Aguilar Montes de Oca, Y. P., Valdez Medina, J. L., González-Arratia, N. I., & González Escobar, S. (2013). Los roles de género de los hombres y las mujeres en el México contemporáneo. *Enseñanza e Investigación en Psicología*, 18 (2), 207-224.
- Alario, M. (2018). La influencia del imaginario de la pornografía hegemónica en la construcción del deseo sexual masculino prostituyente: un análisis de la demanda de prostitución. *Asparkia: Investigación Feminista*, 33, 61-79. <http://dx.doi.org/10.6035/Asparkia.2018.33.4>
- Alario, M. (2020). *La reproducción de la violencia sexual en las sociedades formalmente igualitarias: Un análisis filosófico de la cultura de la violación actual a través de los discursos y el imaginario de la pornografía. TOMO I .Discursos sobre sexualidad y violencia hasta la actualidad eta TOMO II. La reproducción de la violencia sexual en sociedades patriarcales formalmente igualitarias en la actualidad* [Tesis doctoral] Ministerio de Igualdad Centro de Publicaciones, España.
- Alario, M. (2021). *Política sexual de la pornografía: sexo, desigualdad y violencia*. Cátedra.
- Alborch, C. (2002). *Malas. Rivalidad y complicidad entre mujeres*. Aguilar
- Amorós C. (1995). *10 palabras clave sobre Mujer*. Verbo Divino.
- Ballester, L., Orte, C., eta Pozo, R. (2019). Nueva pornografía y cambios en las relaciones interpersonales de adolescentes y jóvenes. In L., Ballester, C. Orte eta R., Pozo (Coord). *Vulnerabilidad y Resistencia: Experiencias Investigadoras en Comercio Sexual y Prostitución* (pp. 249-284). Universidad de les Illes Balears.
- Ballester, L. eta Orte, C. (2019). *Nueva pornografía y cambios en las relaciones interpersonales*. Octaedro.
- Ballester, R.A. eta Gil, M.D. (1994). Salud sexual (I): análisis del comportamiento sexual de adolescentes, jóvenes y adultos en la comunidad valenciana. *Análisis y modificación de conducta* 20 (69), 111-138
- Bard, G. (2018). Las violencias romantizadas: masculinidades hegemónicas en el capitalismo tardío y heteropatriarcal. *Aposta: Revista de Ciencias Sociales*, (77), 59-100.
- Bengoechea, M. (2006). Rompo tus miembros uno a uno (Pablo Neruda): De la rectificación a la destrucción en los discursos masculinos sobre la mujer. *Cuadernos de Trabajo Social*, 19, 25-41.
- Bravo, P. eta Moreno, P. (2007). La interiorización de los estereotipos de género en jóvenes y adolescentes. *Revista de Investigación Educativa*, 25 (1), 35-58.
- Butler, J. (1990). *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. Routledge
- Campo, L. (2021). La prostitución en el seno de los sistemas de poder: patriarcado, capitalismo neoliberal y colonialismo en el nuevo contexto global. *Disjuntiva Crítica de les Ciències Socials*, 2 (2), 8-21 <https://doi.org/10.14198/DISJUNTIVA2021.2.2.1>
- Castillo, R. eta Montes, B. (2014). Análisis de los estereotipos de género actuales. *Anales de Psicología*, 30 (3), 1044-1060. <https://doi.org/10.6018/analesps.30.3.138981>
- Castells, M. eta Subirats, M. (2007). *Mujeres y hombres. ¿Un amor imposible?*. Alianza Editorial.
- Cobo, R. (2006). Género. In C., Amorós (1995). *10 Palabras clave sobre mujer* (pp. 55-84). Verbo Divino.
- Cobo, R. (2015). El cuerpo de las mujeres y la sobrecarga de sexualidad. *Investigaciones Feministas*, 6, 7-19. http://dx.doi.org/10.5209/rev_INFE.2015.v6.51376
- Cobo, R. (2017). *La prostitución en el corazón del capitalismo*. Catarata
- Cowden, C. R., eta Koch, P. B. (1995). Attitudes related to sexual concerns: gender and orientation comparisons. *Journal of Sex Education and Therapy*, 21, 78-87. [10.1080/01614576.1995.11074139](https://doi.org/10.1080/01614576.1995.11074139)
- De Beauvoir, S. (1949). *El segundo sexo*. Gallimard
- Del Carmen, R., Pérez, J. eta Sanabria, G. (2015). Conducta de riesgo y problemas sexuales y reproductivos de estudiantes universitarios ecuatorianos. *Humanidades Médicas*, 15, (3),

- 421- 439.
- De Miguel, A. (2015). *Neoliberalismo sexual: El mito de la libre elección*. Feminismos.
- Dolores, A. (2018). El sufrimiento de la mujer objeto. Consecuencias de la cosificación sexual de las mujeres en los medios de comunicación. *Feminismo/s*, (31), 167-186. <https://doi.org/10.14198/fem.2018.31.08>
- Epstein, M. (2008). *Adolescents in Conflict: Associations between Gender Socialization, Gender Conflict, and Well-being*. [Tesis doctoral] The University of Michigan, USA
- Escalante, L., Cerrón, C., Salazar, A. eta Mezones, E. (2008). Descripción De La Conducta Sexual En Adultos Jóvenes Limeños. *Revista Horizonte Médico*, 8 (1), 73-80
- Espinar, E. (2009). Infancia y socialización: Estereotipos de género. *Revista Padres y Maestros*, (326), 17-21.
- Expósito, F., Moya, M. eta Glick, P. (1998). Sexismo ambivalente: medición y correlatos. *Revista de Psicología Social*, 13 (2), 159-169 [10.1174/021347498760350641](https://doi.org/10.1174/021347498760350641)
- Expósito, F. eta Moya, M. (2001). Sexismo benevolente: evaluación y relación con variables socioculturales. *Psicothema*, 13 (1), 72-78
- Foshee, V eta Bauman, K. (1992). Gender Stereotyping and Adolescent Sexual Behavior: A Test of Temporal Order. *Journal of Applied Social Psychology*, 22 (20), 1561-1579. [10.1111/j.1559-1816.1992.tb01757.x](https://doi.org/10.1111/j.1559-1816.1992.tb01757.x)
- García-Vega, E., Fernández, P. eta Rico, R.A. (2005). Género y sexo como variables moduladoras del comportamiento sexual en jóvenes universitarios. *Psicothema*, 17 (1), 49-56
- Galet, C. eta Alzás, T. (2015). Trascendencia del rol de género en la educación familiar. *Campo Abierto*, 33 (2), 97-114.
- Gimeno, B. (2012). *La prostitución*. Bellaterra.
- Griffiths, M.D. (2012). Internet sex addiction: A review of empirical research. *Addiction Research & Theory*, 20 (2), 111–124. <https://doi.org/10.3109/16066359.2011.588351>
- Glick, P. eta Fiske, S. T. (1996). The Ambivalent Sexism Inventory: Differentiating hostile and benevolent sexism. *Journal of Personality and Social Psychology*, 70 (3), 491–512. [10.1037/0022-3514.70.3.491](https://doi.org/10.1037/0022-3514.70.3.491)
- Glick, P., Fiske, S. T., Mladinic, A., Saiz, J. L., Abrams D., Masser, B., Adetoun, B., Osagie, J. E., Akande, A., Alao, A., Brunner, A., Willemensen, T.M., Chipeta, K., Dardanne, B., Dijksterhuis, A., Wigboldus, D., Eckes, T., Six-Materna, Y., Expósito, F., Moya, M., ... Ferreira, M. C. (2000). Beyond Prejudice as Simple Antipathy: Hostile and Benevolent Sexism Across Cultures. *Journal of Personality and Social Psychology*, 79 (5) 763-775. <https://doi.org/10.1037/0022-3514.79.5.763>
- Glick, P., Fiske, S.T., Masser, B., Manganelli, A.M., Huang, L., Rodríguez-Castro, Y., Willemsen, T.M., Six-Matema, I., Lameiras, M., Eckes, T., Volpato, C., Pek, J.C., Sakalh-Uğurlu, N., D'Avila Pereira, M.L., Brunner, A. eta Wells, R. (2004). Bad but Bold: Ambivalent Attitudes Toward Men Predict Gender Inequality in 16 Nations. *Journal of Personality and Social Psychology*, 86 (5) 713-728 <https://doi.org/10.1037/0022-3514.86.5.713>
- González, B. (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género. *Grupo Comunicar*, 12, 79-88.
- Hartog, G. eta Ríos, M.E. (2003). En la ley de la selva, los hombres ganan... En la búsqueda de la justicia, las mujeres esperan. *Revista Internacional de Ciencias Sociales y Humanidades*, 13 (2), 127-147
- Hernández, R.A. (2021). La niña (del) en el espejo: envidia entre mujeres. (*pensamiento*), (*palabra*). *Y obra*, (26) 211-219 <https://doi.org/10.17227/ppp.num26-14393>
- Herrera, P. (2000). Rol de género y funcionamiento familiar. *Revista Cubana de Medicina General Integral*, 16 (6), 568-573.
- Hite, S. (1976). *El informe Hite: estudio de la sexualidad femenina*. Debolsillo
- Huston, A.C. (1985). The Development of Sex Typing: Themes from Recent Research *Developmental Review* 5, 1-17 [https://doi.org/10.1016/0273-2297\(85\)90028-0](https://doi.org/10.1016/0273-2297(85)90028-0)
- Jameson, F. (2005). *La lógica cultural del capitalismo tardío*. Trota.

- Lamas, M. (2000). Diferencias de sexo, género y diferencia sexual. *Cuicuilco*, 7 (18), 84-105.
- Lameiras, M. eta Rodríguez-Castro, Y. (2002). Evaluación del sexismo moderno en adolescentes. *Revista de Psicología Social*, 17 (2), 119-128. <https://doi.org/10.1174/021347402320007555>
- Lameiras, M. eta Rodríguez-Castro, Y. (2003). Evaluación del sexismo ambivalente en estudiantes gallegos/as. *Acción Psicológica*, 2 (2), 131-136 <https://doi.org/10.5944/ap.2.2.526>
- Ley Orgánica 1/2023, de 28 de febrero, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo. (2023). Boletín Oficial del Estado, núm. 51, p. 18.
- Lienas, G. (2006). *Quiero ser puta: contra la regularización del comercio sexual*. Península
- Löfgren, L eta Månsson S.A. (2010). Lust, Love, and Life: A Qualitative Study of Swedish Adolescents' Perceptions and Experiences with Pornography, *The Journal of Sex Research*, 47 (6), 568-579 <https://doi.org/10.1080/00224490903151374>
- Mancinas, R. (2011). *La mujer en el espejo mediático: sexo, género y comunicación*. Asociación Universitaria Comunicación y Cultura.
- Masser, B. eta Abrams, D. (2004). Reinforcing the Glass Ceiling: The Consequences of Hostile Sexism for Female Managerial Candidates. *Sex Roles*, 51, 609-615 [10.1007/s11199-004-5470-8](https://doi.org/10.1007/s11199-004-5470-8)
- Millan, R. (2013). Visibilizar las diferencias de la educación y la socialización de género en la intervención social. In E. Roldán (Coord.), B. Leyra (Coord.), M. Nebreda (Coord.), M. Pajarín (Coord.), A. Rivas (Coord.) *Género, educación e intervención social Experiencias compartidas entre España y Níger* (pp. 51-57). Universidad Complutense de Madrid, Instituto Complutense de Estudios Internacionales, ICEI
- Millett, K. (2010). *Política Sexual*. Ediciones Cátedra. Feminismos.
- Monferrer, M. eta Flor, P. (2015). Elaboración y validación de una escala de actitudes hacia la pornografía. *Ágora de Salud*. Vol. II. 191-201 <http://dx.doi.org/10.6035/AgoraSalut.2015.2.19>
- Montilla, J. eta Kromrey, J. (2010). Robustez de las pruebas T en comparación de medias, ante violación de supuestos de normalidad y homocedasticidad. *Ciencia e Ingeniería*, 31, (2), 101-107.
- Nelson, C. eta Keith, J. (1990). Comparisons of female and male early adolescent sex role attitude and behavior development. *Adolescence*, 25 (97), 183-204
- Oliván, S. (2017). *Doble visión de los estereotipos de género en la Literatura Infantil, el antes y el ahora* [Gradu Amaierako Lana] Universidad de Zaragoza, Facultad de Ciencias Humanas y de la Educación.
- OMS (2017ko irailaren 20a). La salud sexual y su relación con la salud reproductiva: un enfoque operativo. Disponible en: <https://www.who.int/es/publications/i/item/978924151288>
- Orbach, S. eta Eichenbaum, L. (1988). *Agri dulce. El amor, la envidia y la competencia en la amistad entre mujeres*. Grijalbo.
- Osborne, R. (2009). *Apunteorbas sobre la violencia de género*. Bellaterra.
- Otero, G., Cárdenas, R., Monreal, C. (2021). Hipersexualización de las niñas: de la cosificación a la subjetividad femenina a través de la coeducación. In T. Núñez (Coord.) eta T. Vera (Coord.) *Libro de Actas del Congreso Internacional para el Estudio de la Violencia Contra las Mujeres 2017-2020* (pp. 125-134). Junta de Andalucía, Consejería de Igualdad, Políticas Sociales y Conciliación.
- Padrós, C. (2021) Cómo avanzar en la lucha por la libertad e igualdad de la mujer: propuestas legales frente a la cosificación, hipersexualización y pornificación de la sociedad. *Femeris*, 6 (2), 144-161. <https://doi.org/10.20318/femeris.2021.6139>
- Pateman, C. (1995). *El contrato sexual*. Anthropos
- Puleo, A. (1992). *Dialéctica de la sexualidad: género y sexo en la filosofía contemporánea*. Cátedra.

- Ranea, B. (2016). Analizando la demanda: relación entre masculinidad hegemónica y prostitución femenina. *Investigaciones Feministas* 7 (2), 313-330
https://doi.org/10.5209/rev_INFE.2016.v7.n1.50746
- Real Academia Española. (2022). Pornografía. In *Diccionario de la lengua española*. Recuperado en 04 de mayo de 2023, de <https://dle.rae.es/pornograf%C3%ADa>
- Rebollo, A., Hornillo, I. eta García-Pérez, R. (2006). El estudio educativo de las emociones: Una aproximación sociocultural. *Revista electrónica Teoría de la Educación: Educación y Cultura en la Sociedad de la Información*, 7 (2), 28-44.
- Rebollo, A. eta Hornillo, I. (2010). Perspectiva emocional en la construcción de la identidad en contextos educativos discursos y conflictos emocionales. *Revista de Educación*, (353), 235-263.
- Rodríguez-Castro, Y., Lameiras, M., Carrera, M.V. eta Faílde, J.M. (2009) Aproximación conceptual al sexismo ambivalente: Estado de la cuestión. *SUMMA Psicológica UST* 6 (2), 131-142
- Rodríguez-Castro, Y., Lameiras, M., Carrera, M.V. eta Faílde, J.M. (2010) Evaluación de las actitudes sexistas en estudiantes españoles/as de educación secundaria obligatoria. *Psychología: Avances de la Disciplina*, 4 (1), 11-24
<https://doi.org/10.21500/19002386.1155>
- Saldivar, A., Díaz, R., Reyes, E., Armenta, C., López, F., Moreno, M., Romero, A., Elemí, J. eta Domínguez, M. (2015). Roles de Género y Diversidad: Validación de una Escala en Varios Contextos Culturales. *Acta de Investigación Psicológica*, 5 (3), 2124-2147
[10.1016/S2007-4719\(16\)30005-9](https://doi.org/10.1016/S2007-4719(16)30005-9)
- Sambade, I. (2017). La instrumentalización de la sexualidad. Masculinidad patriarcal, pornografía y prostitución. In L. Nuño eta A. de Miguel (Dirs.), eta L. Fernández (Coord.), *Elementos para una teoría crítica del sistema prostitucional* (pp. 169-180). Comares.
- Sánchez, A. (2015). *Sexo, género y agresión*. [Tesis doctoral]. Universidad de Santiago de Compostela, Facultad de psicología, España.
- Sierra, J., Díaz, G., Álvarez, A., Calvillo, C. Granados, R., eta Arcos, A. (2019). Relación del deseo sexual con la excitación sexual objetiva y subjetiva. *Revista de Psicopatología y Psicología Clínica*, 24 (3), 173-180. <https://doi.org/10.5944/rppc.25374>
- Simón, E. (2010). *La igualdad también se aprende: Cuestión de coeducación*. Narcea.
- Suberviola, I. (2020). La socialización diferencial emocional de género como factor predictor del carácter. *Revista de Género e Igualdad*, (3), 80-93. <https://doi.org/10.6018/igual.369611>
- Sullivan, R. eta Mckee, A. (2015). *Pornography: Structures, agency and performance*. Polity Press.
- Tasso, V. (2007). *El otro lado del sexo*. Debolsillo.
- Taylor, S.J. eta Bogdan, R. (1986). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Paidós
- Téllez, A. eta Dolores, A. (2011). El significado de la masculinidad para el análisis social. *Revista Nuevas Tendencias en Antropología*, (2), 80-103.
- Walter, N. (2010). *Muñecas vivientes: El regreso del sexismo*. Turner.